

ERAKUNDE ADIERAZPENA, ARRAZA DISKRIMINAZIOA DESAGERTZEAREN ALDEKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA

Onartzea Arraza Diskriminazioa Desagertzearen Aldeko Nazioarteko Egunari buruzko erakunde adierazpen hau

Europako Kontseiluaren kulturarteko elkarrizketan egindako lan aitzindariak, batez ere, *Libro Blanco sobre el Diálogo Intercultural: Vivir juntos con igual dignidad* deritzonak, kulturak trukatzeko eta elkarren artean eztabaidatzeko guneak sortzearen garrantzia azpimarratzen dute, eta errazago egiten baitu herritartasuna eskuratu eta erabiltzea, bai eta kulturarteko gaitasuna sustatzea ere, batez ere tokian-tokian. Hartan beste gauza bat ere nabarmentzen dute, hain suertez, hiriak direla giltza aniztasuna kudeatzeko, identitate anitza eta gizarte irekiak sortzea bultzatzea dela medio, talde guztien partaidetza harreman estu eta eraikitzailean jarraziz.

Toki Autonomiari buruzko Europar Gutuneko Protokolo Gehigarria gogoan, herritarrek tokiko bizitza publikoan parte hartzeari buruzkoa, eta tokiko berrikuntzaren eta gobernantza onaren estrategia ere, gure ustez aniztasuna demokraziaren eta giza eskubideak hastapentzat hartuta kudeatzea gizarte guztientzako eginkizun komuna da, eta immigranteak integratzeko estrategiak ez dira eraginkorrak eta sostengagarriak aniztasun estrategia egokirik gabe.

Herritartasuna, hezkuntza, zerbitzu publikoak, lan merkatua eta kultur bizitza modu bidezkoan eskuratzeko, ezinbesteko baldintza izango da gobernua eta erakundeak kulturaz elkarren ezberdinak diren gizaldeentzat diseinatuta egotea eta kultur gaitasuna duten banakoek eta taldeek administratzea. Eta onartuta demostraturik dagoela aniztasuna baliotsua dela gizakiak eta gizarteak garatu eta kohesioa izateko, ekonomia hazteko, ekoizteko, sortzeko eta berritzeko, eta

aniztasunaren onura horiek gauzatu ahal izateko, politikek tokian-tokian egokituta egon behar dutela, gatazkei aurrea hartu eta aukera berdintasuna eta gizarte kohesioa sustatzeko prest.

Kulturarteko gizarteratzearen ikuspegiaren oinarria da gutxiengoan kulturak babestea, kulturetako gaitasuna, hizkuntz aniztasuna, kulturarteko hezkuntza, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzea, gorrotoa eragiteari aurrea hartzea, hedabideek tolerantziaren kultura sustatzea, immigranteen nahiz gizarte hartzaileen arteko elkarrekintza, eta gizarte zerbitzuek kulturartekotasunean gaitasuna izatea. Kulturak eta kultur ondoreak eginkizun garrantzizkoa dute hiria espazio publiko komun partekatu moduan eraikitzean, jendea adoretzen baitute identitate pluraltasuna arakatzera kultu ondarearen eta egungo kultur adierazpideen aniztasunaren bidez, baita lehenaldi partekatu bat dugula eta etorkizun komun bat dugula amets sustatuz ere.

Hiriak aurrendariak dira aniztasuna integratu eta kudeatzeko lanean, politika berritzeko laborategiak dira, eta ekarri muntaduna egiten diote gizarte kohesioari, aniztasuna integratu eta kudeatzeko kulturarteko ikuspegi bat bereganatzearen bidez. Eta ikusita Europako Kontseiluko Tokiko eta Eskualdeko Agintarien Kongresuak kulturarteko hiriei buruz emaniko aholkua, horren arabera, hainbat jatorritako herritarrak hiriarekin identifikatzea lortu duten oso hiri inklusiboek berritzeko gaitasuna erakusten dutela eta gai direla populazioaren baliabideak, trebetasunak eta sormena erabiltzeko, hiria erakargarriago bihurtu eta inbertsio eta lan aukera berriak erakartzeko.

Neurri horien artean, bereziki, sustatzea balio partekatuak nabarmendu eta hiri nortasun anitza eta askotarikoa eraikitzen ahalegintzen den diskurtso politikoa; hainbat jatorritako herritarrentzat egokituriko politika, erakunde eta zerbitzuak;

tokian tokiko funtzionario eta eragileak kulturarteko gaitasuna izatea, eta guztiok tokiko gobernua esku hartzea.


Horregatik guztiagatik, Donostiako Udalak

- Kulturarteko gizarteratze hiri eredu bat sustatuko du, bai eta hura abiaraztea erraztu eta horren eragina neurtzeko tresnak landuko ere.

- Hitzematen du lanean jarraituko duela tokiko eremuan kulturarteko gizarteratze eredu bat aplikatzen, bai eta bultzatuko ere esperientziak eta jakiundea trukatzeko tokiko sareak sortzea.

- Kontuan izango du kulturarteko gizarteratze eredia migratzaileak gizarteratzeko politikak edo kulturarteko elkarrizketarako eta aniztasuna kudeatzeko politikak berraztertu eta areago garatzean.

- Ahalegin berezia egingo du aurrea hartu eta salatzen sexu, nazionalitate, jatorri etniko edo kultural, aukera sexual, desgaitasun edo sinesmenengatiko bazterkeria.



Josu Ruiz Martin
Ernesto Gasco Gonzalo
Portavoz Grupo Municipal BILDU



Portavoz Grupo Municipal PSE-EE



Ramon Gomez Ugalde
Portavoz Grupo Municipal PP



Eneko Goia Laso
Portavoz Grupo Municipal PNV